



## **Sarbide Proba Arruntaren B ZATIA**

**Bi ariketa egin behar dira. Epaimahaiak hainbat entzunaldi proposatuko du, eta entzun eta ezagutzeko galderari nahiz analisiari dagozkien galderari idatzita erantzun behar zaie.**

### **Entzun eta ezagutzea**

Mendebaldeko musika-errepertorioko funtsezko obrei buruzkoak dira entzunaldiak. Entzunaldi edo obra-zati bakoitzak hiru minutu inguru irauten du. Entzunaldi bakoitzaren ondoren, izangaiak minutu batzuk ditu aukera anitzeko galderari erantzuteko. Ariketaren amaieran, entzunaldi guztiak entzuten dira jarraian. Galderak aukera anitzekoak izango dira, eta proposaturiko entzunaldi bakoitzarekin zerikusia izango dute. Galdera horien helburua honako hau da: izangaiek harmoniaren, egituraren, melodiaren edo tinbrearen elementuak ezagutzeko eta dagozkien testuinguruan kokatzeko duten gaitasuna egiaztatzea.

ADIBIDEAK:

### **Entzunaldiak:**

- G. Torelli, Biolinerako concertoa, Op. 8, 8 zk., Allegro
- G. Gershwin, "Summertime", Porgy and Bess operakoa
- W.A. Mozart, Pianorako sonata Fa Maiorren, K.533/K.494
- S. Reich, New York Counterpoint, Movement II
- J. Cage, 4'33''
- F. Schubert, "Das Wandern", Die schöne Müllerin obrakoa
- J. Brahms, Pianorako kintetoa fa minorren, Op. 34, Scherzo
- J. S. Bach: 6. fuga 3 ahotsetan BWV 851
- C. Monteverdi: L'Orfeo, II. ekitaldia. "Vi ricorda" aria estrofikoa
- C. Debussy: I. liburuko VIII. preludioa (...la fille aux cheveux de lin)
- F. Schubert "Erstarrung", Winterreise bildumakoa

Aukera anitzeko galderak:

**Esan ezazu zein den piezaren tema nagusia:**



**Zein da pieza horren erdiko sekzioaren tonalitatearen eta tonalitate nagusiaren arteko zerikusia?**

- Bere Erlatibo Maiorraren tonalitatea
- Dominantearen tonalitatea
- Subdominantearen tonalitatea

**Obra hori serie dodekafoniko batean oinarrituta dago. Serie hori...**

- ...eskala kromatikoaren hamairu soinuek osatzen dute. Bertan, ez dago besteak baino garrantzi handiagoko soinurik.
- ...sei tonu osok osatzen dute. Bertan, lehen eta seigarren soinuak gainerakoak baino garrantzitsuagoak dira.
- ...eskala kromatikoaren hamabi soinuek osatzen dute. Bertan, ez dago besteak baino garrantzi handiagoko soinurik.

**Azentuen banaketa dela-eta, zeren txandaketa atzematen da pieza horren erritmo-alderdian?**

- Erritmo bitarra eta hirutarra zati osoan
- Erritmo hirutarra sekzio instrumentaletan eta erritmo bitarra ahots-sekzioetan
- Erritmo bitarra eta hirutarra sekzio instrumentaletan eta erritmo bitarra ahots-sekzioetan

**Melodia-progresiorik erabili al du egileak zati horretan?**

- Ez, ez dago melodia-progresiorik
- Bai, melodia-progresio bat dago ahots-sekzioetan; ez, ordea, instrumentaletan
- Bai, melodia-progresio bat dago sekzio instrumentalean; ez, ordea, ahots-sekzioetan

**Zein da pieza horren forma?**

- A-B-A'
- A B A B A'
- A B A C A'

**Pieza hori:**

- Eguberri Egunekeo Mezaren aurretik organoan interpretatzeko konposatu zen
- Austriako Enperadoreak konposatu zuen, W.A. Mozartek gainbegiratuta
- Teklaturako pieza independenteen bilduma batekoa da

**Zeren adierazgarri da pieza hori?**

- XVIII. mendeko teklaturako musikaren estilo fugatuaren maila gorenarena
- XVI. eta XVII. mendeetako birjinalerako piezen estilo fugatuaren hastapenena
- XVI. mendeko organo-tablaturen berezko ahots-estiloarena



musikene

**Zure ustez, nor da obraren egilea?**

- Arnold Schoenberg
- Gustav Mahler
- Franz Schubert

**Zein korrontetakoa da obra hori?**

- Alemaniako erromantizismokoa
- Vienako klasizismokoa
- Germaniaren aldeko sobietar errealismokoa

**Batez ere non interpretatzeko konposatu zuten obra hori?**

- Austriako Inperioko areto burgesetan
- Austria-Hungariako Inperioko opera-antzikietan
- Austria-Hungariako Inperioko kontzertu-areto handietan

**Zein estilo-korronterekin lotuko zenuke obra hori?**


- Alemaniako espresionismoarekin
- Italiako neorrealismoarekin
- Frantziako inpresionismoarekin



### **Analisia**

Lehen entzundako obra baten analisi idatzia egin behar da. Obra horren partitura banatuko da. Ariketa hau egiteko 90 minutu emango dira gehienez ere. (Aukera anitzeko erantzunak, test)

#### **ADIBIDEA**

- 1) a) Adieraz ezazu obraren forma.
  - b) Adieraz ezazu zenbat ataletan egituratuta dagoen eta esan ezazu zein den bakoitzaren hasierako konpasa.
  
- 2) a) Zein da konposizio honen tonalitate nagusia?
  - b) Zein da 23. konpasaren tonalitatea?
  - b) Zein da 24. konpasaren tonalitatea?
  - b) Zein da 47. konpasaren tonalitatea?
  - e) Zer konpasetan dago obraren amaiera-kadentzia, eta zer motatakoa da?
  
- 3) a) Zifra itzazu partituran honako konpas hauen artean ageri diren akordeak: 20.etik 25.era, 44.etik 48.era eta 52.etik 56.era.
  - b) Zein da 24. konpaseko lehen akordearen eginkizuna?
  - c) Azal ezazu 54. konpaseko bigarren beltzean sortzen den akordea.
  
- 4) a) Azal itzazu piano-akompainamenduan obrari batasuna ematen dioten erritmo-  
etx  

  - b) Poesiari dagokionez (testua duen obren kasuan), zer deskribatzen dute honako musika-motibo hauek?
  - c) Zein estrofatan egin dira melodia-desplazamendurik zabalenak?
  - d) Aurreko galderaren ildotik, zer ondorio atera dituzu desplazamendu horiek poemari dagokionez duten esanahiari buruz?
  - e) Zein konpasetan daude espresio-gailur edo klimaxak? Aipatu hiru gutxienez.
  
- 5) a) Adieraz ezazu zein den obra horren estiloa.
  - b) Obraren zein ezaugarri kontuan izanik atera duzu ondorio hori?